Nguyen Van Dong, euskal errefuxiatuen aldeko keinu ahaztua

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Biarritz, 1972ko urriaren 14an. Javalquinto lorategietan, udaletxearen ondoan, Nguyen Van Dong vietnamdar herritarra suizidatu zen, bere buruari bonzo erara su emanda. Biharamunean *Sud Ouest* egunkarian aipamen laburra egin zioten gertaerari eta hurrengo egunean datu gehiago jasotzen zituen artikulua atera zuten. Hego Euskal Herriko eta Espainiako medio nagusiek Efe agentziaren oharra besterik ez zuten jaso. Kasu guztietan gertaeraren hainbat xehetasun jaso zituzten, besteak beste lekukoek ezin izan ziotela bizia salbatu, eta handik lau ordutara identifikatu zutela 73 urteko gizona –gaur egun, webgune batean "vietnamdar gaztea" esaten dioten arren–. Pista lauso bat ere utzi zuen prentsak: Van Dong Paueko psikiatrikoan ingresatuta zegoela eta egun horretan bertan ihes egin zuela. Baina ez zuten aipatu zergatik suizidatu zen.

Bederatzi urte lehenago Thích Qu□ng Đ□ monje budistak bere buruari su eman zion (argazkian) Hego Vietnamgo gobernuaren jazarpenaren aurka protesta egiteko. Malcolm Browne argazkilariak gerora Pulitzer saria emango zion argazkia atera zion eta horrek eragin zuen mundu osora zabaltzea muturreko protesta molde horren berri, alegia, nork bere burua bonzo erara erretzearen berri –"bonzo"k monje budista esan nahi du–. Bada, zeren aurka egin nahi zuen protesta Van Dongek?

MALCOLM BROWNE

1963an argazki hau mundu osoan zabaldu zen. Bederatzi urte geroago Nguyen Van Dongen Biarritzeko ekintza bertsuak ez zuen ia oihartzunik izan.

Jesús Valenciaren *La ternura de los pueblos* (2011) eta Iñaki Egañaren *Ihes lariak* (2015) liburuetan ematen zaio erantzuna galderari: euskal errefuxiatuen aldeko ekintza izan zen. Une horretan hainbat euskal errefuxiatu gose greban zeuden, haien kontrako neurrien aurka egiteko eta Espainiako Estatura egotzi zitzaten saihesteko. Orduan, Van Dongek hainbat gutun anonimo bidali zituen egunkarietara, "Yon" edo "Jon" ezizenez sinatuta, neurriak bertan behera uzten ez bazituzten bere burua erreko zuela mehatxatuz. Eta, azkenean, mehatxua bete zuen.

Ekintzaren 50. urteurrena dela eta, Lander Arbelaitz ARGIAko kazetaria lerrootan jasotako datu eta iturriak biltzen aritu da. Baina oraindik badago zer arakatu; esaterako, *Enbata* aldizkariko eta Paueko psikiatrikoko artxiboek Van Dongen misterioa gehiago argitzeko eta bere ekintzari merezi duen aitortza egiteko bidea zabaldu dezakete. ●



MUSEO DELLE CIVILTÀ – MPE - L. PIGORINI

Urpean gordetako Neolitoko drogak

La Marmotta Neolitoko aztarnategia Erromako probintzian dago, Bracciano lakuko urek estalita. Urpean arrasto organikoak ezin hobeto gorde dira eta, esaterako, nabigazioari lotutako egurrezko hainbat objektu aurkitu dituzte –piragua bat barne–. *Science Report-Nature* aldizkarian argitaratu berri dutenez, nazioarteko ikerlari talde batek egurrezko hiru igitai-kirten aztertu ditu, eta efektu psikoaktiboak dituzten hainbat landare espezie identifikatu. Gizakiek landare horien propietate aluzinogeno nahiz terapeutikoak baliatzen zituztela uste dute ikerlariek, eta aurkikuntza honek duela 7.500 urteko gizakien bizimoduari buruzko informazio interesgarria ematen duela. ●